

**BI MILA ETA HEMERETZIKO MAIATZAREN HAMAHIRUAN  
EGINDAKO KONTU BATZORDE BEREZIAREN BILKURA-AKTA.**

Arrietan bi mila eta hemeretziko maiatzaren hamahiruan, arrastiko zortziretan, Udalaren Kontu Batzorde Berezia osatu da udaletxeko Bilkura Aretoan, Angel M<sup>a</sup> Acillona Martinez alkatea Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Aitziber Ibinarriaga Delgado  
Edoitz Bilbao Aurre  
Aintzane Enzunza Zorrozuza  
Haizea Bengoetxea Andikoetxea  
Gartzen Agirregoitia Abad

Aitzbea Yarto Goirik aurretiaz azaldu dau bertaratu ezina.

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeke eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

**I.- 2018KO AURREKONTUKO KONTU OROKORRAREN ALDEKO  
IRIZPENA.**

2018ko ekitaldiko Kontu Orokorrari buruzko agiria aztertuta, Kontu Batzorde Bereziak, aho batez, 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren aldeko irizpena emon dau, eta iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hamabost egunez argitaratzea adostu dau; horretara denbora-tarte horretan interesdunek erreklamazioak, eragozpenak edota oharrak aurkeztu ahal izango dabez Udalbatzak 2018ko Kontu Orokorra behin betiko onartu aurretik.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoenez, Alkate jaunak amaitutzat jo dau bilkura zortzi eta erdietan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da.